

IV. ERANSKINA - DERRIGORREZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA DONOSTIAKO FERIAN PLAZA ESKATZEKO

Adjudikaziodunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Atrakzioaren titularren NAN eta/edo atrakzioaren enpresa titularren identifikazio-txartela IFK edo dokumentu baliokidea, edo ordezkariaren ziurtagiria, eskaintza ordezkarien bitartez egingo balitz.
 2. Atrakzioaren titularren telefono mugikorraren zenbakia.
 3. Ferian atrakzioaz arduratuko den pertsonaren telefono mugikorraren zenbakia.
 4. Alta Jarduera Ekonomikoen Zergan.
 5. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria.
 6. Donostiako ferian beren zerbitzuak emango dituzten langileen Gizarte Segurantzako TC-2 kotizazio-buletinen kopia, edo haien kontratazioa edo enpresan alta emanda daudela justifikatuko duten laneko agiriak, edo baliokideak jatorrizko herrialdean. Autonomoen kasuan ordaindutako azken agiriak aurkeztuko dira.
 7. Enplegatuen zerrenda, bakoitzak egin behar duen lana, txandak eta abar adieraziz.
 8. Laneko arriskuetatik autobabesteko plana.
 9. Zergen ordainketa egunean izatea frogatzen duen ziurtagiri originala.
 10. Erantzukizun Zibileko Aseguru eguneratua, ondoren adierazten diren gutxieneko estaldurekin:
 - Helduentzako gailuak eta gailu bereziak: 601.000€ gutxienez
 - Haurrentzako gailuak: 300.500 € gutxienez
 - Etxolak, tabernak, txurro-postuak...: 60.100€ gutxienez
- Adierazitako guztia eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Feria garatuko den datetarako indarrean den erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko da. Ordainagiri horrek aipamen egiten zaion atrakzioaren izena, estalduraren zenbatekoa eta aseguru-etxea erantzukizunetik salbuetsita geratzen den kasuak adierazi behar ditu.
11. Memoria teknikoa: Dokumentazio teknikoa, segurtasun baldintzak –gutxienez atrakzioaren deskribapenari eta muntaketa, mantentze, kontserbazio eta erabilerarako jarraibideei buruzkoak– betetzen direla ziurtatzen duena.

12. Feriako atrakzioen Urteko Azterketaren Ziurtagiria, elementu mekaniko zabalgarriak dituzten horiena (adib. karruselak, noriak, errusiar mendiak edo antzekoak), eskumena duen teknikari tituludunak edo ziurtatutako ikuskaritza-erakundeak igorria, ferietarako eta atrakzio-parkeetarako makinen eta egituren UNE-EN 13814:2006 arauarekin edo hura ordeztuko duen araudiarekin bat etorritz.
13. Atrakzioa bere osotasunean erakusten duten oraingo argazkiak.
14. Edozein motako elikagai, goxo... saltzen diren atrakzioen kasuan, Donostiako Udaleko Osasun Publikoa eta animalien ongizatea arloko inprimaki normalizatua.
15. Tabernen eta txurro-postuen kasuan, olio erabiliak biltzeaz arduratzen den enpresarekin sinatutako kontratua.
16. Ibilgailuaren Baimen Sanitarioa eta Donostiako Udaleko Osasun Publikoa eta animalien ongizatea arloko inprimaki normalizatuak.
17. Atrakzioaren Aldi Baterako Instalazio Elektriakoaren Buletina.
18. Ferian parte hartzen duen atrakzioetako bakoitza garraiatzen duten kamioien fitxa teknikoak, eta haien dokumentazioa, IAT, indarrean duten aseguruak...
19. Atrakzioa adjudikatu eta muntatu ondoren, muntaiaren segurtasunaren eta sendotasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eskumena duen teknikari tituludunak edo ziurtatutako ikuskaritza-erakundeak igorria. Atrakzioa ezin izango da erabili ziurtagiri hori Donostia Kultura Festak arloko bulegoetan aurkeztu artean.